

Ibiltari Astiduna

IBILTARI ASTIDUNA

Publiko guztientzako Ballet-a

Fernando Palacios

GIDA DIDAKTIKOA

Bigarren Hezkuntza

Dantza eraikitzea da, infinitua begiztatzeko eta ikertzeko zerbait sendoa sortzea. Dantzatzea ez da bakarrik dantza egitea. Dantzatzea erritmo batek eramaten uztea da. Dantzatzea erritmoaren barneko mugimendua aurkitzea eta nabaria egitea da. Dantzatzea ez da bakarrik buruan markatutako egitura bat jarraitzea. Dantzatzea dantzari bide askea uztea da. Norberak bidea jarraitzen du. Koreografia ibai baten ibilgua bezalakoa da.

Sonia Sanoja (Venezuelako dantzaria)

Sarrera orokorra

Gida hauen helburua irakaslegoari zuzenean entzungo diren obren aurreko eta ondorengo lanetan laguntzea da. Bertan kontzertu didaktikoaren definizioaz eta entzute eta gozamenerako animazio lanak egiteko informazio ezberdinez elika daitezke. Hori horrela, irakasle bakoitzak eskeiniriko material hau bere gelako errealitatera egokitu beharko du, ikaslegoaren berezitasunak asko aldatzen baitira beraien adinaren baitan, musika jakintzen eta kontzertuen asistentzietako esperientzian. Hemen ez ditugu proposamen itxiak eskaintzen, egin beharrekoak ez diren, ez eta derrigorrez aurkezturiko orden berean landuak izan behar diren aktibitate posible batzuk soilik. Zailtasun ezberdineko zenbait elementuz osatzen saiatu da proposamen bakoitza, irakaslegoak aurkeztu lezakeen maila ezberdinetara egokitzeko asmoz.

Gure gida guztien helburuak berdintsuak direnez, eta kontzeptu berdinetaz behin eta berriz ez jarduteko, Helburu, Edukina, Metodologia, Sekuentziaketa eta Baliabideei buruzko edozein informazio jakin nahi duena Sail honetako aurreko gidak kontsultatzerara gonbidatzen dut.

ÍNDICE

I. Atalburua	IDEIA OROKORRAK	
	Aitzin-urratsak	
	Abiapuntua	
	Musika lana	
	Osagaiak	
	Talde instrumentala	
	Elektroakustika	
	Musika	
	Testuak	
	Koreografia	
	Proiektzioak	
II. Atalburua	LABURPENA ETA EGITURA	
	Laburpena	
	Pertsonaia nagusia	
	Eszenaldiak	
III. Atalburua	ITURRI ETA AIPAMENAK	
	Dena irudi batengatik	
	Manhattan-eko leihoak	
	Espazioen espezieak	
	Artearen gramatika	
	Artetik mugimendura	
	Chema Madoz	
	Moholy-Nagy	
	Loup eta Quino	
IV. Atalburua	TESTU POETIKOAK	
V. Atalburua	BEHAKETA MUSIKALA	
VI. Atalburua	DANTZA GARAIKIDEA	
	Dantza	
	Mugimenduaren oinarritzko formak	
	Dantza garaikidearen orokortasunak	
	Historia	
	Dantza modernoaren aitzindariak	
	Ballet Klasikoa – Dantza Garaikidea	
	Dantza hezkuntzan	
	Rhythm is it!	
VII. Atalburua	BIZI ETA HEZI ARTEAN	
	Bilatu. Aurkitu. Balioetsi. Gozatu.	
	Egungo artea. Mundua beste modu batez.	
VIII. Atalburua	ARIKETAK	
	I. Atal.-ri buruzkoak	Idea orokorrak
	II. Atal.-ri buruzkoak	Laburpena eta egitura
	III. Atal.-ri buruzkoak	Iturri eta aipamenak
	IV. Atal.-ri buruzkoak	Testu poetikoak
	V. Atal.-ri buruzkoak	Behaketa musikala
	VI. Atal.-ri buruzkoak	Dantza Garaikidea
	VII. Atal.-ri buruzkoak	Bizi eta hezi artean
IX. Atalburua	BIBLIOGRAFIA. INTERNET	
X. Atalburua	PARTITURAK	
XI. Atalburua	IKONOGRAFIA	

I. Atalburua – IDEIA OROKORRAK

AITZIN-URRATSAK

Sentimenen Opera (Fernando Palacios-ek sortutako haurrentzako ikuskizuna, “Opera de Cámara de Madrid” Konpainiak eta Nafarroako Gobernu Eskola Kontzertuek produzitua, Barañaingo Musika Eskolaren laguntzaz, 2005ean) lanak lortutako emaitza baikorraren aurrean, Bigarren Hezkuntzako ikasleei eta publiko orokorrari zuzendutako ikuskizun berri honek aurrekoa osatzen du eta hurrengo erakundeak tartekatzen ditu: Nafarroako Gobernu Eskola Kontzertuak. “Ópera de Cámara de Madrid” Konpainia. Nafarroako Dantza Eskola. Barañain Auditorioa. Laura Terré diseinugile eta argazkilaria. Fernando Palacios sortzailea.

ABIAPUNTUA

Gaurko nerabeen gizalegearen ezaugarrietako bat, munduko behaketaren ezezkoa da: telebista, bideojoko eta telefono mugikorraren bidez bakarrik egiten dute. Gehiengoak munduan zehar bere gakoak gogoan hartu gabe pasatzen dira, inguruan mugitzen denari jaramonik egin gabe. Horrek deskonexio orokor bat eragiten du gizakiarekin eta bere adierazpide altuenetarikoa batekin: artearekin.

“Artea gertatzen dela” aldarrikatzen duen arte kontzeptualaren hastapenatik oinarriturik, lan honek kasu gehiegi egin gabe gure ondotik pasatzen diren gauza hauekiko topaketa bat sortaraztea bilatzen du. Ikuskizun honek eguneroko formei eta daitezkeen eraldakeei buruzko ausnarketa egitera gonbidatzen gaitu; hau da, artelanaren sorkuntza aztertzen du: “Artea ez da kontatzen: ikertzen da”.

MUSIKA LANA

Ibiltari Astiduna musika, dantza, antzerkia, poesia eta proiektzioak integratzen dituen ballet garaikidea da. Aldi berean musika-taldeak dantzariekin interakzionatzen du, musika eta eszenaren arteko banaketarik utzi gabe.

Sentimenen opera egile berberaren aurreko opera zen *Analfabia Planeta*-ren epigono bat zela modu berean, musikalan berri hau lehenengoaren osagarri bat da. Hura bezala, lan sekuentziala da, mugagabetasun xamarrarekin: istorio bat eta egitura baten gainean norbanakoaren interpretaziorako soka luzerik uzten da. Harreman artistikoaren zartada azalgaitza arrazonamendu logikoa baino gehiago bilatzen da.

OSAGAIK

Musika-zazpikotea: harizko boskotea + piano 4 eskuz. Musika-Zuzendaria. Eszena-Zuzendaria. Koreografoa. Dantza taldea. Musika eta eszena-prestatzaileak. Erregidorea. Audio-tresna. Irudi proiektorea. Anplifikazio orokorreko ekipoa. Argi-ekipoa.

TALDE INSTRUMENTALA

Talde instrumentala XX. Mendeko hasierako Espainian hainbeste zabaldu zen saloi-talde tipiko bat da: seikotea (bi biolin, biola, txelo, kontrabaxu eta pianoa). Sartzen dugun aldaera bakarria pianoa bi pianojolek jo behar dutela da (lau eskuz).

ELEKTROAKUSTIKA

Laneko eszenaldi bakoitzaren hasieran entzunen ditugun 9 musika elektroakustikoak CD batean grabatu egin dira. Grabaketa hauek bi motakoak dira: elektroakustikoak eta aho-soinuekin. Musika elektroakustikaren atalak F. Palaziosen *Un millón de pasos* izeneko lanetik atera dira. Aho-soinuetako atalak egile berak prestatu ditu, ahoz egindako soinu eta txistukaden nahazketa baten bidez.

MUSIKA

Lana lengoaia garaikide eta atonal batean oinarritzen da, nahiz eta beste zati tradizionalago batzuekin elkartu. Talde instrumental eta elektroakustikaren arteko elkarrizketa bukaezina dago. Orkestra-ataletako une batzuetan erritmo tradizionalak agertzen dira, tratamendu berri eta sarkastiko batekin: bolero, bals, swing, pasodoble, giga, tekno, rok.... Musikaren konplexutasuna gero eta nabariagoa da atalez atal: lehenengoak azkenak baino askoz oinarritzekoagoak dira (asmoa musika-formak arreta bereganatzea eta entzulea gai konplexuagoetan murgiltzea da).

KOREOGRAFIA

José Lainez-ek egindako koreografia gida hau idazteko unean oraindik sortze eta eszenaratze-prozesuan dago. Hau dela eta, nolakoa izanen den zehazki jakitea ezinezkoa da. Aurreratu dezakegun bakarria antzerki-dantzarekin lotutako dantza garaikidea izanen dela da, eta dantzari-kopurua dozena inguruan izanen dela.

TESTUAK

Laneko testuak bederatzi forma poetiko desberdinetan oinarritzen dira: *bertso askeak, erretolika, alejandrinoak, lira, rap-a, haiku-a, abestia, kakofonia eta sonetoa*. Testu hauek musika elektroakustikaren gainean grabatuta daude. Metrika gehienak gaztelarako forma bereziak dira. Beraz, nahiz eta gida honetan eta kontzertuan euskaratuta agertu, gomendatzen dugu gaztelaraz idatzitako gidan jatorrizko testuak ere begiratzea.

PROIEKZIOAK

Ikuskizunean zehar Laura Terré-k egindako irudiak proiektatuko dira. Hauek koreografiak eta testuak osatuko dituzte, beraiekiko elkarrizketa sortuz.

II. Atalburua – LABURPENA ETA EGITURA

LABURPENA

Paseatzen den bitartean, pertsonaia batek inguruko formak behatzen ditu. Forma hauetatik bere barnean burutik atera gabe elementu artistiko bihurtuko dituen elaborazio bat sortuko da. Ikuslea bere razonamenduetan sartzen da eta musika, testu, koreografia eta proiektzioen bitartez eraldaketa horietatik

PERTSONAIA NAGUSIA

Ibiltari Astiduna bakarrik ibiltzen da. Ez du ezer berezirik egin behar, mundua begiratu izan ezik. Iragale bat da, ez da turista jasangaitz edo galdu bat. Ez du informaziorik bildu behar, ez du planorik ezta gidarik ere, ez du egunkaririk erosten, ez du galdetzen, ez du erantzuten. *Ibiltari Astiduna* bere urratsek eramaten dute, ez da toki zehatz batera joaten. Ez du inoiz garraibiderik erabiltzen. Patuak bere lana egitea lilurutzen zaio: bere sustapenak itxaroten ditu eta berak bakarrik ulertzen dituen ikur eta zeinuak jarraitzen ditu. Beste batzuetan jende-itsasaldiak eramaten du, non dagoen jakiteko kezkatu gabe. Ez da nabarmentzen, ez tu inolako ezaugarri berezirik, ibiltzen den jendetzaren arteko bat da. Itxuratik alde egiten du, nahiago du inor ez dela beraz konturatu: bere lana egiteko modu bakarra da. Bizitzako bidearen ikuslea da: begira, entzun, sentitu, pentsatu, hausnartu egiten du... Badaki edertasunaren balioztatzea norberaren barruan izkututzen dela.

ESZENALDIAK

Lana eszenaldi motzen segida batez osaturik dago. Sarrera, 9 eszenaldi eta Epilogo dauzka. Denak elkarturik agertzen dira.

Eszenaldi guztiak antzeko eran egituratzen dira: beti bi zatitan.

Lehenengo zatia: Deskriptibo eta naturalistena. Ibiltari Astidunaren ezaugarriak aztertzen dira. Musika grabatuta eta irakurritako testua daramatza. Dantzariak eguneroko eta antzerki-mugimenduak garatzen dituzte (jendea ibiltzen da, azoka baten saltzaileak, erakusleiho baten manikiak...)

Bigarren zatia: *Ibiltari Astidunak* pentsatzen eta eratzen duena. Lehengoan azaldutakoan oinarritzen da. Zuzeneko musikaz lagunduta dago. Zati dantzatuena da, koreografia konplexuena dena, erritmo argiagorekin.

Sarrera “Eskaleen orkestra”

1. Eszenaldia: Ibiltari bakartia: “Ibiltzeko moduak”
2. Eszenaldia: Ibiltariak imitatzen du: “Iragaleak eta beraien keinuak”
3. Eszenaldia: Ibiltari geldia: “Erakusleihoak eta manikiak”
4. Eszenaldia: Ibiltari asmatzailea: “Leiho argitsuak”
5. Eszenaldia: Ibiltari antzezlea: “Graffiti eta pintaketak”
6. Eszenaldia: Ibiltari Zen-a: “Biribilak”
7. Eszenaldia: Ibiltari eserita: “Kafe-etena”
8. Eszenaldia: Ibiltari galdua: “Azoka nahaspila”
9. Eszenaldia: Ibiltariak eraikitzen du: “Gaineko erremateak”

Epilogo

III Atalburua – ITURRI ETA AIPAMENAK

Sortze-lan guztietan bezala, *Ibiltari Astiduna* erreferentzi puntu ezberdinetatik hasten da: zenbait liburu, argazkiak, ilustrazioak, egunkarien ebakinak, komikiak, filmak... Iturri hauetako batzuk hurrengoak dira.

DENA IRUDI BATENGATIK

EL PAIS SEMANAL delakoaren argitaratutako “*Todo por una imagen*” artikuluan Rosa Montero idazleak hurrengo idatzi du: “*Desde hace cincuenta años, el ser humano vive absorto en una ficción visual. Pasamos tantas horas ante la tele que nuestros modelos del mundo ya no los obtenemos de la experiencia propia y la reflexión, ni de la observación de otros individuos, de nuestros vecinos, de los héroes del barrio o de la comarca, sino de las fantasmagorías en dos dimensiones de nuestras pantallas, de su chisporroteo vacío y su fingimiento. (...) Ahora vivimos ensimismados en lo virtual, como si sólo lo reflejado en las pantallas fuera real, como si la existencia no tuviera enjundia ni valor si no es filmada. (...) Y los adolescentes, y esto es terrible, torturan animales, o apalean mendigos, o maltratan a otros niños, y lo graban en vídeo con sus móviles. Como si no fueran capaces de sentirse vivos si no se ven en una pantalla. Y como si esta patológica disociación de sí mismos les llevara a una extrema crueldad. No me digan que no es para asustarse.*”

MANHATTAN-EKO LEIHOAK

Antonio Muñoz Molinaren “*Ventanas de Manhattan*” liburutik, zati hauek bereizten ditut:

“*Camino casi sin rumbo por la ciudad, con una mochila al hombro y un cuaderno de hojas blancas y tapas azules guardado en ella, y sólo me detengo cuando me obliga el cansancio o cuando lo que me apetece es sentarme a mirar hacia la calle por el ventanal de un café. Voy como un nómada, como un espía extranjero, ansioso por apurar el tiempo...*”

“*Vamos paseando como dos holgazanes, sin oficio ni beneficio, sin lazos, sin horarios ni compromisos que cumplir, acogidos al adanismo de amantes solos en el principio del mundo que descubrimos en esta ciudad hace tantos años, disfrutando perezosamente de la mañana (...) Yo miro libros y discos de segunda mano, me dejo llevar por la pululación de zoco que ocupa la acera, y ella, mientras tanto, más alerta y más práctica, encuentra con instinto certero las cosas bellas y útiles que le gustan, carteles publicitarios de principios de siglo...*”

“*La caminata es una forma de conocimiento y una manera de vivir, un ejercicio permanente de aproximación. El cuerpo entero, el alma, la imaginación, la mirada, la atención, el recuerdo, se conjugan en una sola tarea. La caminata es el tiempo presente y todo el pasado de los caminos que uno ha recorrido hasta hora mismo, se ondula concéntricamente en el tiempo, en todas las veces que he caminado por estas mismas calles. Hay una plenitud de la vida física, de los sentidos en acción, en estado de alerta...*”

“Hasta el hecho de leer (el periódico) gratis le da a la lectura un aliciente de parasitismo confortable, muy propio de quien se pasa el día yendo de un lado para otro y sin hacer nada de sustancia, nada más que mirar, mirar los edificios, los árboles, las limusinas, las caras de la gente, mirar cualquier clase de escaparates, lo mismo los de las librerías de segunda mano que los de las tiendas de lencería femenina o de embrujos y conjuros caribeños, o los de esos establecimientos con aire de clandestinidad y discretos reclamos de neón en forma de mano o de ojo en los que se anuncia la consulta de una pitonisa.”

“El caminante inmóvil, contemporáneo mío y lejanísimo, cofrade de la misma sociedad intemporal de nómadas que los caminantes de bronce de Giacometti y los de carne y hueso de las calles de Manhattan: yo mismo entre ellos, con mis ojos siempre dilatados por el asombro, las sucesivas figuras de mí mismo que han caminado por esta ciudad desde la primera vez que llegué a ella.”

ESPAZIOEN ESPEZIEAK

George Perc frantziarra “*Gune Motak*” izeneko liburu interesgarri baten egilea da. Bere atalak hurrengoak dira: *Orrialdea. Ohea. Gela. Apartamendua. Eraikina. Kalea. Auzoa. Hiria. Landa. Herrialdea. Europa. Mundua. Espazioa.*

Gure ikuskizunaren espazioarekin zerikusi handia duten zenbait testu motz aukeratu dut.

“1969–an bizi izan nintzen, edo ene oroitzapenei lotuta nituen, hamabi gune (kaleak, enparantzak, zeharguneak, paisaiak) hautatu nituen,. Hilean behin bi tokiren deskripzioa egitea proposatu nintzen. Deskripzio horietako bat tokian bertan eta ahal den neutroena egiten da: kafetegi batean eserita edo kalean zehar ibiltzen, kuaderno eta boligrafo bat eskuan dudala, etxeak deskribatzen saiatzen naiz, dendak, aurkitzen dudan jendea, errotuluak eta, era orokorrean, nire begirada erakartzen duten xehetasunak. Bestea, deskripzioa leku desberdin batetik egiten da: orduan tokia buruz deskribatzen saiatzen naiz eta iruditzen zaizkidan oroitzapen guztiak gogorarazten saiatzen naiz, bai han gertatutako jazoerak, bai han topatutako jendea. Deskribapen hauek bukatuta daudenean, kartazal batean sartu eta argizariz zigilatu egiten dut.”

“Atzerritar hiriak: geltokitik hotelera joaten dakigu. Urrunegi ez egotea nahiago dugu. Erdialdean egotea gustatuko litzaiguke. Hiri plana kontuz aztertu egiten dugu. Museoak gogoratzen ditugu, gomendatu dizkiguten nahitaez ikusi behar ditugun tokiak. Margoak eta elizak ikustera goaz. Pasiatzea gustatuko litzaiguke, kalez kale ibiltzea, baina ez gara ausartzen, ez dakigu noraezean ibili, galtzeko beldur gara. Benetan ez gara ibiltzen, beti presaka gabiltza. Ez dakigu ongi zer begiratu. *Iberia*-ren bulego batekin topo egiten badugu ia hunkitzen gara, negar gura sartzen zaigu *Hola* egunkaria kiosko batean ikusten badugu. Inor ez da oroipen batera lotzen uzten, hunkipen batera, aurpegi batera.”

“Mundutik, zer ezagutu daiteke? Gure jaiotzatik gure eriotza arte, zenbat espazio ikustatu dezake gure begiradak? Planetaren zenbat zentimetro karratu zapaldu dute gure oinek?”

“Espazioa denbora baino hezituagoa edo kaltegabetuagoa dirudi: alde guztietan erlojua daraman jendea ikus dezakegu, baina oso arraroa da iparrorratza daraman jendea aurkitzea. Ordua edozein unean jakin behar dugu, baina inoiz ez diogu gure buruari galdetzen non gauden.

ARTEAREN GRAMATIKA

J.J. Beljon-en “*Artearen Gramatika*” liburuaren sarreran irakur dezakegu: “*Principios de diseño que derivan de la manera en que nos atamos los cordones de los zapatos, nos doblamos la ropa o cortamos el césped y que guardan relación con otros actos comunes de la vida cotidiana, como caminar por la playa, reír, llorar, brindar, abrazar o hacer el amor y también la guerra (...) Gramática del arte pone al desnudo las fuentes del diseño que habían estado totalmente abandonadas. El autor acentúa la importancia del cuerpo en relación a la forma, nuestra manera de andar, de bailar. Los sentidos entran en escena: el sentido del orden, de la dirección, del ritmo e, incluso, el sentido de la ocasión, siendo éste el instinto de sacarle provecho a los materiales que ocasionalmente se encuentran a nuestro alrededor*”.

☞ Ikus. XI. ATALBURUA: IKONOGRAFIA (I)

ARTETIK MUGIMENDURA

“*Tanz und Bildende Kunst*” (*Artetik mugimendura*) Barbara Haselbach irakaslearen liburua da (oraindik gaztelerara itzulia izan ez dena). Arte formetarik hasita, eta beraiekin saiakuntzak eginez, dantzaren formetara heltzen gara.

Liburu horretik ateratako XI. ATALBURUA: IKONOGRAFIA (II) atalburuan dauden irudi batzuk ikustatzea proposatzen dut.

CHEMA MADOZ

Chema Madoz-en argazkiak ikusizko aurkikuntzak dira, batzuetan barregarriak, jende guztiak (eta batez ere, gazteek) ulertu eta gozaten dituztenak: gainazal batean txintxetak diruditen tantak; edalontzi batetik isuritako uraren itxura duen haria; igerileku baten tranpolina dirudien lisatzeko taula bat; perlazko lepoko batekin egindako urka bat; tximeletak diren muskuiluak; sardin batez osatutako labana, arrosa baten zurtoinean dauden amuak, bizikleta baten katea lepoko bezala, bi erpurudun eskularra; flautaren moduan zulatutako pipa; atek diren kartetako gaztelu bat... Paradoxen bukaezinezko errepertorioa, objetuen metaforak.

Fernando Castro irakasleak berarengandik hau dio: “Dudarik ez dago Madoz-en argazkiak burutzapen liluragarriak direla, gertatzen diren gauzak, nahiz eta bapateko ikustapenak izan oroitzapenean ohorezko tokia hartzen dutenak (...) Irudikapen bultzada batez markatutako objetuen artearen uneko argazkiak, metamorfosi dinamika apartekoak eta, hala ere, egunerokoak”.

Hartutako beste iruzkinak: “Denbora dela Chema Madoz-ek zilarrezko ideiak margotzen ditu. Bere lanaz ustekabeko guneak irekitzen ditu, indar handiko formak, eta guzti hori heldu egiten zaigu, zerbait oroitzen gaituelako eta mugarik gabeko ausnarketara bultzatzen gaitu. Bere argazkien bidez formatako atributoen arrarokeria eta naturan etengabe gertatzen diren zikloak ulertzera heltzen gara. Bere ibilbidean zehar keinuen lantegi batekin oparitu gaitu eta gure ametsak berregin ez zezaketen guneak berregin dizkigu.

☞ XI ATALBURUA: IKONOGRAFIA (III) Ikusi.

MOHOLY-NAGY

“*Albers eta Mholy-Nagy –ren besarkada apurtuta*” artikulutik, El País-eko *Babelia-n* argitaratuta (2006eko martxoaren 11n), hurrengo esaldiak hartu ditut:

“Nahiz eta Josef Albers eta Lázsló Moholy-Nagy soilik bost urtetan elkarrekin izan, Bauhaus-en irakasten zebiltzanean, bi artistek saiakuntzarako grina eta arte giza-bilakaerarako bidea izateko babes bezalako helburuak amankomunean izan zituzten”.

“Arteak gizarte baten zirrara kristaldu egiten du, artea ispilu eta ahotsa da.”

“Mundua begi berriez begiratzea”.

LOUP Y QUINO

Quino argentinarra eta Loup frantziarra barrezko tira eta komiki-en marrazkilari ospetsuenetakoak dira. Artearen munduaz etengabe arduratu dira. Beren lanetan, intelektual eta humanistiko maila handikoak, gaur egungo arte-lengoiaren zenbait alderdi eta musikaren aurkezpenaren zenbait errituei buruzko kritika argi-argia ikus dezakegu.

☞ XI ATALBURUA: IKONOGRAFIA (IV) –atalburuan artea eta musikari buruzko beraien komikien aukeraketa bat dago.

IV. atalburua - TESTU POETIKOAK

1. ESZENALDIA - IBILTARI BAKARTIA “Ibiltzeko moduak”

Ibiltari Astiduna bakarrik ibiltzen da;
ez du zer eginik,
mundua behatu izan ezik.
Oinezko arrunt bat da,
turista galdu baten antipoda.
Ez du inoiz informaziorik biltzen,
plano eta gidarik ez dauka,
ez du inoiz egunkaririk erosten.
Bere urratsek, inori galdetu gabe,
abiatzen den lekura eramaten dute: inora...
Bere motorea bihotza denez,
garraioek mintzen dute;
eta zoria ikustatzen duenean
bere bultzadetara abandonatzen da
eta interpretatzen ikasi duen keinu
eta ikurrei jarraitzen ditu.

2. ESZENALDIA - IBILTARIAK IMITATZEN DU: “Iragaleak eta beraien keinuak”

Denei interesatzen zaigun salbu,
ibiltariari dena interesatzen zaio:
(ixiltzen da, ez da mintzatzen,
sentitzen du, ez du iritzirik ematen).
Bizitzaren joan-etorriaren ikuslea,
(ez du entzuten, aditzen du,
ez du ikusten, begiratzen du).
Itxura grisezko bizizalea,
(kanpotik arrunta, barrutik sua,
ikustezina kanpoan, formak barruan),
jendearen mareak arrastatzen du
(ez da nabarmentzen, ez du itxurarik egiten,
nahasten da, garden bihurtzen da).
Sentsazioen bilduma egiten du,
(begiak bai, kamerarik ez,
talentua bai, mugikorrik ez),
horrela bere lana sortu dezake,
(arretaz, deskuidorik gabe,
buruz, lelokeriarik gabe).
Eta somatzen duen guzti hau,
eraldatu eta berpizten du.
(ez da amaitzen, energia zentrifugatzen du,
ez da hiltzen, bizitzaz maitemintzen da).

3. ESZENALDIA – IBILTARI GELDIA: “Erakusleihoak eta manikiak”

Ibiltariak behatzen ditu erakusleihoak,
liskarren eszenatokiak balitz bezala.
Objektu geldiak eta bizigabekoak
begirada batez berpizten ditu segidan.
Burdindegia erakusleihoak maite
ditu, trasteri handia gorrotatu orde;
margoen erakusgarri koloretsuetan,
puntu, marra eta irudiak marrazten ditu askotan.
Liburu eta diskoen zaporeak asmatu,
begietan gordetzeko eta gero entzun.
Manikien sufrimendua dauka ezaguna,
gogoak irakurtzen baitu bere begietan;
eta itzuliko diete haien begiespenaz
bizi lortu ez duten beraien bizia.

4. ESZENALDIA – IBILTARI ASMATZAILEA: “Leiho argitsuak”

Gaua agertzen denean
leihoen argiak berpizten ditu,
kanpai galduen kresalak
orduan soinua usain bihurtu,
ezabatuz gogogabetasuna.
Etxeetan gordeta,
jendeak atsedean hartzen du eta,
sutondoan jarrita,
bizian ez dituela
arazorik dago simulatzean.
Eserleku beroetan
mintzatzea erraza da,
telebista petrak
mihiluzeen desira
ezerk baino hobe handitzen dute.
Eguneroko asmoak
azken batean martxan jartzen dira,
orain, dunbotsik gabe,
algara sutan jartzen
duten zirkuitoak pizten dituzte.

5. ESZENALDIA – IBILTARI ANTZEZLEA: “Graffiti eta pintaketak”

Ibiltariak aurkitu eta geldi,
behatzen du
hormaren aurrea estaltzen duen
alfabetu.

Zirriborro, zeinua dirudien
bere mintza,
margo eta marrazki eder bihurtzen da
hau grazia!

“Grafitigileek” marrazten dituzte
horma oroetan,
margorik gabe, erabiltzen dute
“spray” bakar bat.

Haien lorpenak jakinarazteko
asmoarekin
hitz arraroak margotzen dituzte
ehun formakin.

Baina ez da erraza bere “abeze” hori
ezagutzea
letren bidez mezu irakurtezin bat
egiten du eta.

Dalí, Barceló edota Picasso
bat badago,
ziur aski salbuespen bat besterik
ez da izango.

Azkenean kontu handiz ibiltzeko
beharra dago,
batzuek lengoaia pertsonala lortzen
dutelako.

Edozein ustekabeko pintaldi
baliogabeak,
subastetan lor dezake kristoren
salneurria.

Hala eta guztiz adituek gero
Graffitiak
inondik inora ere Arterik
ez direla.

Ba, behin baterako ulertuko dute
artea ez
dela bakarrik negozio edo oporra
inola ere ez!

Graffitiak ez dira inoiz margotu
diruagatik.

Askeak dira, merkaturik gabe,
jaun barik!!

6. ESZENALDIA –IBILTARIA ZEN-A: “Biribilak”

Behako ondoren
biribilak dabilta
bere burutik.

7. ESZENALDIA - IBILTARI ESERITA: “Kafe-etena”

Ibiltariari ez zaio dena era berean interesatzen
publizitate eta modernoa ez zaio gustatzen.
Ez du kartelik begira,
pankartak bost axola,
dendetan sartzen ez da,
ez du gogoko erostea.
Zorionsua da
eskulturen artean,
margo eta irudi
ederretan murgildurik.
Horregatik, berak,
museora joateko
ibileren artean
denbora du gordeko.
Atera ondoren,
kafetegian eseri,
eta hor dago,
begira jendeari.
Ibiliz ta korrika
jende honek,
ez dute etorkizuna
argi ikusten.

8. ESZENALDIA – IBILTARI GALDUTA: “Azoka nahaspila”

Ibiltari ibilkorra,
bidaiari ibiltzailea da,
ibilera iraunkorra dauka
eta askotan bideratzen ditu zenbat galdera.
Benetan, ero hori
interesgarria da beti,
bere aurpegiaren azpitik
biztanle arraro dago bizirik.
Batzuen ustez, justel hutsa!
besteen ustez, ¡sineztezina!
Hala eta guztiz, aurrera jarraitu
-aurrera, aurrera, aurrera-
ezer ikaratzen ez baitu,
ikasle hasiberri bat bezala.
Eta astiduna eta ibiltaria denez,
azoketan da galtzen,
-haragi, barazki, aldaki, arrainak-
eta betiko disimuluan,
bezero bat balitz bezala,
azkarra, argia eta bizia.
Postuetan zehar doa,
apalak ikertzen ditu,
usain, begira, ukitu, entzun
dudatan gelditzen da,
begira eta segi aurrera.

9. ESZENALDIA – IBILTARIAK ERAIKITZEN DU: “Gaineke erremateak”

Ibiltari astidunaren kezka
biziaren sekretua ezagutza da,
osatzen baitu bere begiradak
aurkitzen duen edozein galdera.
Barruko sormena ez da gelditzen,
bere izaerari ematen dio zentzua,
eta hortan arte, joko eta zientzia
alkimia zuzen batean dira nahazten.
Harrokeriarik ez duen artista honek,
bere asmakizunak gordetzen ditu,
buruko tokirik sakonenean.
Oroimenean hauekin jolasten
eta beste asmoekin nahazten ditu
denbora, hasita, amaitzen den lekuan.

V. Atalburua – BEHAKETA MUSIKALA

Gorago komentatu dugun bezala, eskena bakoitza bi ataletan zatituta dago: lehenengoa musika elektroakustikako koltxoi baten gainean narratutako testuak, eta bigarrena zuzeneko musikarekin.

Eszenaldi bakoitzeko bigarren ataleko zenbait ezaugarri kontatzera noa orain, hau da, ikuskizunean septetoak zuzenean joko duena.

☞ X. ATALBURUAN. PARTITURAK(II) atalean jatorrizko partiturako hiru orrialde sartu ditut.

I. Eszenaldia -IBILTARI BAKARTIA: “Ibiltzeko moduak”

Gainezarritako bakarrak: musika-jole bakoitzak hurrengoarekin gainezartzen den bakar motz bat egiten du. Eszenaldi honetan ez dago jatorrizko musikarik: soinu egiten duen guztia hurrengo eszenaldietatik ateratakoa da; hots, obran agertuko diren melodiak eta erritmoak jotzen diren ohizko obertura bat bezala dabil. “Belarria berotzeko” balio du, entzungo denaren zerbait iragartzeko eta instrumentuak bakarrean eta osotasunean erakusteko. Bakarren antolakuntza hurrengoa da:

- | | |
|-----------------------|----------------------------------|
| 1) <i>Tutti</i> | 9. <i>Eszenaldia</i> |
| 2) <i>1. Biolina</i> | 2. <i>Eszenaldiko Vivace-a</i> |
| 3) <i>1. Piano</i> | 3. <i>Eszenaldiko Vivace-a</i> |
| 4) <i>Kontrabaxua</i> | 4. <i>Eszenaldiko Grabea</i> |
| 5) <i>Biola</i> | 5. <i>Eszenaldiko Allegro-a</i> |
| 6) <i>2. Pianoa</i> | 6. <i>Eszenaldiko Andante-a</i> |
| 7) <i>2. Biolin</i> | 7. <i>Eszenaldiko Moderato-a</i> |
| 8) <i>Txelo</i> | 8. <i>Eszenaldiko Allegro-a</i> |

II. Eszenaldia -IBILTARIAK IMITATZEN DU: “Iragaleak eta beraien keinuak”

(ABA’) Forma: dauden musika formatuak ohizkoena da: hasieran gertatzen den zerbait (A), ezberdina den zati bat erdialdean (B), eta lehen zatian gertatutakoari aipamen bat (A’). Imitatzen duen ibiltari bat denez, musika kanon eta imitazio jarraien bitartez antolatu da. A zatiak erritmo bitarrean daude eta erdiko *Tarantella* hirutarrarekin (B) kontrastatzen dira.

(A) - *Presto kanonikoa*

(B) - *Tarantella ausarta eta erasokorra*

(A’) – *Hasierako Prestoa*

III. Eszenaldia – IBILTARI GELDIRIK: “Erakuslehoak eta manikiak”

Hiru atalek tentsioa hartzen dute eta bapatean gelditzen dira: bata bestearen atzetik, lasaiak diren hiru *andante* apurka tentsionatzen dira, bolumen eta abiaduraz gutxinaka igotzen, indarra hartzen dute eta, gainekaldean, bapateko isiltasunean geratzen dira, erakuslehoetako manikien mugiezintasuna gogorarazten.

- 1) *Andante: lasaitasuna, tentsioa, geldiketa*
- 2) *Andante: lasaitasuna, tentsioa, geldiketa*
- 3) *Andante: lasaitasuna, tentsioa, geldiketa*

IV. Eszenaldia – IBILTARI AZTIA: “Leiho argitsuak”

Lasaitzen diren lau Nokturno-ak: gaueko musika, lehuna, iluna eta sentibera samarra. Lau zati hauen ondorioa aurrekoen aurkakoa da: tentsioa bakoitzean ezabatzen da, musikaren bizia itzaltzen da (isiltasunean ikaraldirik gabe heltzeko modua). Zati haunen azken konpasak *Morendo* litsa daramate.

- 1) *Hiltzen den Grabea*
- 2) *Hiltzen den Moderatoa*
- 3) *Hiltzen den Allegrettoa*
- 4) *Hiltzen den Bals “naive”-a*

V. Eszenaldia – IBILTARI ANTZEZLEA: “Graffiti eta pintaketak”

Erritmoa. Parodia. Humorea: *Scherzo*-ren funtzioa betetzen du. Erritmo azkar batekin hasten da, “scat”-aren antzekoa (azkarra eta nabarmena). Beherakadako *Glissando* baten ondoren, haria jotzen duen pasodoble toreatzaile baten parodiara heltzen gara. Hortik harien bakarren segida batera joaten gara amaiera hunkigarri batean amaituz.

- 1) *Allegro oso markatua*
- 2) *Pasodoble ziztrina*
- 3) *Vivace hari bakarrekin*

VI. Eszenaldia – IBILTARI ZEN-A: “Biribilak”

Gelditasuna eta gogoeta: Lanaren une ekialdetarra da. Moteltasuna, barnebilakuntza, misterioa. Ikaraldirik ez. Motelki hurbiltzen diren soinuak, gaintitzen gaituztenak eta hortzemugan desagertzen direnak. Xederik gabeko musika, bere buruari bira egiten diona. Barne espazioa.

VII. Eszenaldia - IBILTARI ESERITA: “Kafe-etena”

Ariketa eta mugimendua: Zati kanporakoi hau aurreko mugimenduaren kontrakoa da. Hemen ez dago asko meditatzerik: “eramaten uztea” da, ibiltariak kafetegian kafe bat hartzen duen bitartean jendearen behaketa egiten duenean bezala. Behatzen denaren ezberdintasunak dastatzen saiatzen da, eguzkiak aurpegian jotzen dueneko hedonismoan erortzen uzteko. Bi gai oso ezberdinak agertzen dira, nahiz eta biak “dantzari” joera izan, bukatu baino lehen gainjarriko direnak.

- 1) *Allegro: Pasodoble mairutarra*
- 2) *Andantino: piano atala*
- 3) *Biolinen kadentzia*
- 4) *Gaien gainezarketa*
- 5) *Presto minimalista*

VIII. Eszenaldia – IBILTARI GALDUTA: “Azoka nahaspila”

Kaleidoskopioa: Azkeneko bi zatiak konplexuenak dira, beraz ez da erraza izanen beraien egitura koadro soil batean zehaztea. “Merkatal Labirinto” hau atsedean hartzen ez duen erritmo bat dauka: jarduera handiko soinu-giro batean, saltzaileen oihuak, igotzen eta jaisten diren eskalak (eskailerak), *Mission Impossible* filmaren soinu bandaren aipamenak eta pianojoleren nahasdurak agertzen eta nahasten dira... Bukatu aurretik, biolinek prozesua gelditzen dute, bakea lortzen da, baina azken musika-jausiak zapalduak gertatzen dira.

IX. Eszenaldia – IBILTARIAK ERAIKITZEN DU: “Gaineko erremateak”

Ebatzi gabeko igarkizunak: Argi dago obraren zatirik luzeena dela. Luzatu eta moztu egiten den musika elastikoa da, garaietara igo eta sotoetara jaisten dena, etengabe tentsiotu eta baretzen dena. Hari instrumentuak besarkatzen direla dirudi, beraien notak elkarri lotzen direla, bitartean, pianoak bere aurpegi bakarlariena aurkezten du, piano eta orkestrarentzako kontzertua balitz bezala.

Morse-ren erritmoan isilpeko mezuak daude, melodien arteko hika-mika, enigmak, inoiz ebatzi gabeko igarkizunak.

Prozesu guztiaren bukaera azken himnoa da, eraiki dugun bederatzi solairuko eraikinaren goi bukaera, ibiltariak ikustatzen dituen duela mende bateko eraikinen bezalakoa, eskultura koroatuak: kuadrigak, gudariak, kupulak, gangak, apaindutako zabaltzak... Gure begirada altxatu eta leku misteriotsu eta aztertu gabekoetara joateko era.

Capítulo VI – DANTZA GARAIKIDEA

DANTZA

Barbara Haselbach, dantza eta mugimendua hezkuntza arloko jakituenetako bat, era sinple eta biribil batean argitu egiten du dantzaren kontzeptua, eta bere beharra bai hezkuntzan bai bizitzan. *Dantzaren didaktika* artikulutik (“Musika eta Dantza humearentzat” liburuan argitaratua) zenbait kontzeptu atera ditut:

- Dantza hitza sanskrito-tik dator eta “bizi nahia” esan nahi du, hots, giza sentimendu bat, espiritu eta zirrara erako beharra, gorputz-ariketan adierazten dena.
- Mundu osoa, eta gizadiaren oroimena heltzen deneraino, dantza existitu zen eta existitzen da.
- Dantza gizabanakoan eta gizataldean sustraiturik dago.
- Dantza kontzeptuak bai dantzatzearen prozesua bai bere produktua hartzen ditu (hots, dantza zehatz bat).
- Heredatutako edota finkatutako dantzak, dantzaren bapateko formak bezain garrantzitsuak dira. Hots, musikan bezala, dantzan ere sortzea, birsortzea eta inprobisazioa aurkitzen ditugu.

MUGIMENDUAREN OINARRIZKO FORMAK

Rudolf von Laban-ek (gure mendeko dantzaren teoriaririk garrantzitsuena) “Mugimenduaren bost oinarrizko formak” proposatzen ditu, bai bizitza arruntean bai lanean eta dantzan agertzen direnak. Haselbach-ek horrela laburbiltzen ditu:

- Lokomozioa: Bukaerarik gabeko mugimendua alde batetik bestera, bai pausoka izanik, bai saltoka, bai zoluaren gainean biraka, bai zirristatzen, bai narratzen, baita gurpilarena egiten ere.
- Keinuketa: Gorputzaren pisu osoa eusten ez duen gorpu-zatiaren mugimendua, adibidez, burua kulunkatzea, sorbalda jasotzea, eskuekin keinuak egitea edo oina mugitzea.
- Altxaketa: Zutik jartzea, tentetzearen ariketa, jautsia; grabitatearen legearen aurka egiten duten mugimedu guztiak.
- Biraketa: Bere ardatzean gorputz osoa biratzea.
- Kokagunea: Itxurazko kanpoko mugiezintasuna “trinkotasun” eran, lasaikuntzan, edo uneko lasaitasuna tentsio orekatu batean. Mugimendua giharretan gertatzen da, kanpokaldetik ikustezina denaren bereizgarritasunarekin.

DANTZA GARAIKIDEAREN OROKORTASUNAK

Dantza garaikidea ballet klasikoan oinarritutako gorputz adierazpen mota bat da, nahiz eta mugimenduen trinkotasun gutxiago izan. Dantzari baten zehar, ideia bat, sentimendu bat, edo zirrara adieraztea bilatzen duen dantza mota da,.

Bere jaiotza XX. mendeko hasieran kokatzen da, ballet klasikoaren teknika zorrotzari hautabide bat bilatzean, oinutsik dantatzen eta eszenatokian saltoka aritzen ziren dantzariak agertzen hasi zirenean.

Dantza garaikidea mugimenduaren askatasuna da, norberaren energiaren bilaketa, lengoia artistiko guztiak kolokan jartzera bultzatzen gaituen egungo garaia menperatzen duen etengabeko hausnarketa gogoia. Ballet klasikoaren mugimedu eta posizio estilizatuen kontrako erreakzio bat bezala agertu zen, bere irizpide zorrotz, tradiziozko eta erromantiko, eta edozein kode eta erregela akademikotik aldentuz. I. Gerra Mundialaren ondoren ezaguna izan zen eta eginkizun garrantzitsu baten eramailea izan da: komunikazioa.

Askoren esanetan, dantza mota hau ez dena-ren bitartez dena-ren bitartez baino hobe definitzen da. Dantza garaikidean energia gorputzaren dinamika pertsonaren energiatik dator. Beraz, mugimendua gorputzaren atal guztietarano heltzen da. Espazioa, keinu bakoitzaren eta mugimenduaren bizitasunaren bidez, adierazpen bide natural bat bezala erabiltzen da.

Dantza garaikidea eragin zuten Amerikan eta Europan azken mendean garatutako estilo ezberdinetakoen artean, gaur egun bakar bat dirau bizirik: askatasuna. Bere burutzapena ez da jarrera bertikalean soilik egiten, jarrera eta maila asko erabil daitezke. Gertatzen den eran bere teknikaren soiltasun eta dotoretasunez bereizten da.

Dantza garaikidea sentimenduak adierazteko sortutako estilo bat da. Sentimenduak aldatzen diren eran, gaur egungoko dantzariak ere etengabe moldatu behar dute bere dantza.

HISTORIA

Dantza garaikidearen jatorria XIX. mendearen hasieran dago, zenbait dantzarik ballet klasikoan adierazteko murrizte gehiegi somatu zituztenean. Nahiz eta mugimendua artista ezberdinengandik atera, Loie Fuller-ek 1900eko Pariseko Erakusketa Unibertsalean eta Isadora Duncan-en Londresen emandako lehenengo errezitaldietan hasi zela erran genezake.

Hiru arotan mugatu daiteke:

- 1900: Isadora Duncan, Ruth Saint Denis eta Mary Wigman-en mugimendu askeak markatutako aroa, zentzu komunikatiboago bat eman nahi zietenak, mendebaldeko baino iturri zaharretan oinarriturik.
- 1930: Dantzari modernoek bigarren uhina New York-en sortu zen, haien artean Martha Graham, Doris Humphrey eta Charles Weidman daudela. Dantzari hauen ustez mugimenduaren iturria barnean dago, ez kanpoan. Horregatik ekintza naturaletan oinarritzen dira (arnasa hartzea, ibiltzea...).
- 1945: Aro hau II. Mundu-Gerra bukatu ondoren hasi zen eta gaur arte luzatzen da. Alwin Nikolais eta Merce Cunningham dantzariak, besteak beste, giza-dantza, ballet eta dantza modernotik etorritako teknika bateratu zituzten.

DANTZA MODERNOAREN AITZINDARIAK

- Isadora Duncan. Greziar eskulturaren bitartez hasiera eman zion mugimenduari. Oinutsiz dantzatzea nahiago izan zuen, ballet klasikoko oinetako arruntak alde batera utzita. Tunika soil bat erabiltzen zuen janzkera bezala.
- Ruth Sain Denis. Bere konposaketak India, Egipto eta Asiako dantzen estiloetan oinarrituak izan ziren.
- Mary Wigman. Bere koreografia Asiako eta ekialdeko munduan oinarrituta dago. Bere lanetan, bai taldean baziren bai bakarlari eraz, mozorroak askotan erabili izan zituen.
- Marta Graham. Bere teknika erlajazioan eta arnasaren uzkurduan oinarrituta izan zen. Bere lehenengo lanak nahiko abstraktuak ziren gorputzaren mugimenduetan kokatzen bait ziren, gorputz enborrean hasitako mugimenduan, adibidez.
- Doris Humphrey. Bere teknika giza zapalduaren dinamika naturalaren erorketa eta berreskurapenean eta grabitate indarraren eragindua zen. Edukin sozial eta musikaleko umorezko dantzak bere erreperorioetan azaldu ziren.
- Merce Cunningham. Mugimendua bizkarrezurrean kokatu zuen eta Graham-en teknika ballet klasikoarekin bateratzean iralutza bat eragin zuen.

BALLET KLASIKOA

DANZA GARAİKIDEA

Formak beti politak eta dotoreak dira	Formak bizitzaren edertasuna eta itsustasuna erakusten ditu
Gorputzak itxura berezi bat izan behar du eta txikitatik horretarako lan egiten da	Gorputzak edozein pisu edo neurria eduki dezake indartsu eta elastikoa baldin bada.
Mugimendu garaiak eta jautsiak landu egiten dira	Lurrean eta jautsietan lan egiten da
Oinarrizko pausuak oso definituta daude	Pausu mota asko dago
Koreografiak istorio bati jarraitzen dio eta zenbait pertsonaia dauka	Koreografia ideietan eta sentipenetan oinarritzen da.
Arropa eta zapata bereiziek dantzatzen da	Edozein arropakin dantzatzen da. Gehienetan, dantzariak oinutsik dantzatzen dute.
Pas de deux-ean, gizonak emakumea forma definituetan hartzen du.	Gizon batek ala gehiagok emakumea edo beste gizona hartzen dute desohizko eretan. Emakumeak ere gizona hartzen du.

DANTZA HEZKUNTZAN

- Dantza garaikidea guztion eskura dago. Inolako aurre-trebakuntzarik gabe has daitezke gazteak dantzan, horrek berehala parte hartzeko, talde batean integratzeko, forma eta artea norbere gorputzan bizitzeko, eta bere munduarekiko somaketa haunditzeko aukera ematen die.
- Gelan edozein motatako dantzan aritzeak burujabetasuna eta norbere ekimena bultzatzen ditu. Dantza taldeak eratzeak osakide guztien arteko erlazioak garatzen laguntzen du.
- Dantzarekin ohigabeko zirrarak bizi eta elkarbanatzen dira, eta komunikabideetan hartutako ikono estereotipatuak ahazten dira.
- Dantza taldeetan hezi-prozesuak gertatzen dira, araubide zentzu bat lortzera bideratuta daudenak.

RHYTHM IS IT!

“Rhythm is it!” Tomas Grube germaniarrak eta, Berlin-en finkatutako asturiarra, Enrique Sánchez Lansh-ek zuzendutako filma dokumentala da. Simon Rattle-k zuzendutako Berlineko Orkestra Filarmonikoaren lehen hezkuntz-egitasmo handia jasotzen du. Orkestrak goi kulturako marfilezko dorrea utzi egin zuen auzo popularretan sartzeko asmoz, esperientzia protagonizatu zuten 250 gazteen onerako. Ordurarte, musika klasikoaren mundutik at izan ziren, baina prestakuntza gogor eta zirrargarri baten ondoren, Stravinsky-ren *Udaberriko bedeinkazioa* dantzatu ahal izan zuten. Filmak izugarritzko arrakasta lortu du Alemanian, irudien berezkitasunarengatik behar bada, zuzendariak aldezturik prestaturiko gidoirik gabe lan egin baitzuten, eta kultur ekimena martxan zegoenean filmatzen hasi zirelako.

Sir Simon Rattle-k, Berlineko Orkestra Filarmonikoak, Royston Maldomm koreografoak eta hogeita bost herrialdetako 250 gaztek Igor Stravinsky-ren musikan oinarritutako dantza eta musika-ikuskizun hau burutu zuten. Asmo handiko hezkuntza proiektu hau “dantza ikastaldi batek zure bizitza alda dezake” lelotik abiatzen da. Royston Maldommek gazteei haiek dituzten potentziala eta sormen ahalmena erakusten die; bizitza bere buruarekiko konfidantza handiagoz aurre egiten lagunduko dien trebakuntza. Maldomm berak adierazten duen bezala: “musika ez da luxua, beharra baizik, arnasten dugun airea eta edaten dugun uraren antzera”.

Musika eta dantzak bizibide negargarria jasaten duten neska-mutilen kontzientzietako irtenbide bezala balio dute (protagonistetako bat hamabost urtetako ama gaztea da, eta hamasei urtetako beste bat Nigeriatik ihes egiten heldu da, baina alemaniar hizkuntza ez du ezagutzen). “Rhythm is it” norberaren onespeneren bilaketaz musikarekiko amodioaz eta bizitzeko grinaz diardu, egunero egiten duzunean hobetzen saiatzeaz. Horretaz gain luzemetraiak hezkuntza funtzio bat egiten du, dantza eta musika klasikoetara hurbiltzen gaitu; aldezturik serio diruditen Stravinsky erako izenak desmitifikatzen dituen era batez.

Maldomm-en asmo garrantzitsuena “Community Dance”-a da, hots, talde edo komunitate jakin bat (hasieran “gueto”-etako neska-mutilentzat asmatua) dantzaten eta adierazten jartzea eta, honen bitartez, hiriko eskenatoki nagusietara, hiri erdigunean, neska-mutil horiei inork begiratu nahi ez duten tokietara eramango den ikuskizuna eraikitzea... Eraitza ikargarria da.

VII. Atalburua – BIZI ETA HEZI ARTEAN

BILATU. AURKITU. BALIOETSI. GOZATU.

Noizbehinka edertasuna gure bila dator, beste batzuetan, aldiz, toki ezohizkoenenan ager daiteke: bilatzen ikasi behar da, aurkitzen, balioesten eta gozaten. Artearen bitartez ederatsunaren bilaketa bukaezin baterantz joan beharra dugu. Arteak artea deitzen du: ingurune artistikoen zehar ibiltzeak inguratzen gaituenaren irizpen sakonago bat zihurtatzen digu eta, beraz, munduaren ezagutza biziago bat. Artea bizitza bizitzan da. Intensitate baxuko bizitako existentzia baten watioak igotzen dizkigu, forman bizitzeko eta bere indarra somatzeko aukera ematen digu, ideia berrien aurrean jartzen gaitu eta bere asalduraren esku jartzen gaitu. Arteak bizitzen laguntzen gaitu. Bere energiak erakartzen gaitu, bere sormen grinak kutsatzen eta sortzera gonbidatzen gaitu. Sormen artistikoak artistaren munduan jezartzera, bere larriuneak sentitzera eta sorkuntzan parte hartzera bultzatzen gaitu. Azken finean, arte sorkuntza bizitzeak gure sormen ahala garatzen du, eta horrek borondate globaletik, lan katetik askatzen gaitu. Sormen ahalmena tamalez homologatutako mundu honetako alienazioari bizirauteko tresna da. Artea komunikazioa da ikuslea eta sortzailearen arteko topaketa bultzatzen baitu, forma artistikoaren asmoaren indar eta trinkotasunak ideiak banatzen dituelako eta elkarbanatzera eramaten gaituelako.

Sormen artistikoak gizakiaren bi oinarrizko arlo elkarrizketan jartzen ditu: soziala eta hunkipeneko. Gizarteak ezin du aurrera joan, irakasleok es badugu artearen irakaskuntzaren zabaltzean eta sendotzean aurrera egiten. Artea pribilegiadun hizkuntza da, elkartze tokia eta etorkizunerako tresna; Zelaia bertsolariak esaten zuenez: “*etorkizunez betetako kanoia*”. Eta etorkizuna gaur eraikitzen da, ez bihar, eta arteak ezohizko lan sozial bat egin dezake eta “ez teorikoa”den mudu aproposago bat conformatu.

“*Sutan jartzen nauena bizitzan somatzen dudana forma galera da*”, gogorarazten zigun Italo Calvino handiak bere “Datorren milakadarako sei proposamen” testamenduliburuan. Bizitzan dagoen itxura galera hori orekatzeko beharrean gaude, hezkuntza aldi, artearekin egindako etengabezko lanen bitartez, zentzu horretan, ezer ez da musika, antzerkia, dantza, plastika eta bertsolaritza, formaren alaba disziplinatua, baino lagungarriagoa izanen.

EGUNGO ARTEA: MUNDUA MESTE MODU BATEZ

Zentzu honetan, ia egungo arte osoak – eta gero eta oinarrizkoenak diren bere itxurek – publiko handira era erabakor batez hurbiltzera lagundu egin du. Nahiz eta dispersio handia izan, ikus daiteke nola, generalean, gaur egiten den artea “ulergarriagoa” da antzina egiten zenarekin parekatuz. Artista bere obraren atzean desagertzen hasi da, bere lengoaiaren oinarria horrenbeste bilatu du ezen oinarrizkoenarekin topatu egin baituen: soinu gutxitako musikak, kolore edo marra bakarrezko margoak, harrobi edo zabortegei batetik zuzenki ateratako eskulturak, lengoia arrunteko bertsoak, objektu baten errepikapenean oinarritutako instalazioak, antzezlan absurduak, eguneroko bizitzaren bideoak, zehazki gaizki enfokatutako argazkiak... Arteak inoiz ez zuen horrenbeste errepikatu egin, inoiz ez da horren anekdotikoa izan, horren hurbila. Lehen abangoardiako irudi kriptikoetatik nolabaiteko errepikapen eta erraztasuneko ezkutapenera pasatu gara. Gaur egungoko erakusketa bat

hasi-berri batentzat aintzinako tintaturiko artista batena baino askoz “dibertigarriagoa” da; egungo artearen ohizko dastatzailea ez denarentzat gaur egungo artista baten instalazio bat margo abstraktozko erakusketa bat baino azkoz ere hurbilagoa da. Satie, abangoardiako aita eta egungo artearen ameslari haundiena, zati txiki bat ehundaka aldiz errepikatzean datzan obra bat konposatu zuen; zetorkigunaren abisua eman zigun mende bateko aurrerapenez: artea guztion gauza izatera joan behar zuela.

Eguno artearen birtute ukaezin bat mundua beste era batez ikusten irakatsi digula da. Archiboldok aurpegiak landareak eta arrainak margotzen egin bazituen, abangoardien collage-a ekintzara joan zen eta margotzeari utzi egin zion horiek zuzenki jartzeko. Wolf Wolstel-ek kosmoarekiko auzi hau amaitu zuen, eskuak garbituz, sentsazioak eta edertasuna iragartzeko giza esku-sartzerik behar ez zuten harri piloak “naturaren arte obrak” bezala aldarrikatu zituen. Natura eta objektuak gidari estetiko bezala azaldu dira, artista desagertu egin da: horma baten kaltea edo sabaiko hezetasuna ez dira Tapiés-en margo bat ikusitakoan berdin begiratzen; ixiltasuna parametro estetiko bat –eta xumea- izatera joan da Cage-ren ondoren; Pina Baush-ek eguneroko mugimenduak beste eran begiratzen irakatsi digu; eta beste jatorrizko artistekin gauza bera gertatu da. Haiek, azken mendeko mugimendu estetikoak ulertzeko laguntza goresgarria eman digute, ala ere, guzti horren gainera, gure mundua ulertzeko nahitaezkoak izan dira.

“Arte gehiegi dago munduan”, entzuten diet gaur egungo artista askori. Ez dut horrela uste. Ziur aski gehiegizko hutsalkeria dago, arras nahasitako proposamena, izugarrizko abiadura, horrelakoa da gure mundua. Edozen kasutan, informazioaren abiadura artearen gaurko ikuspegia katalogo besarkaezin bihurtu du; hezkuntzak bete-betean nahasketa horretan sartu, funtsezkoa ulertzeko eta hortaz pentsatzeko oinarritzko tresnak eskuratu beharko du.

VIII. Atalburua - ARIKETAK

Atalburu honetan, aurreko ataletan ageritakoari buruzko zenbait ariketa proposatzen ditut, irakasle bakoitzak bere premia, posibilitate, nahi eta norberaren prestakuntzari moldatu beharko dituenak, baita bere eskolaren inguruabar, gelaren ezaugarri, duten material eta irakasgai artistikoei moldatu ere, eta bere hezkuntza-lanean egiten ohi dituenen antzeko ariketa errazetan zehaztu. *Ibiltari Astiduna*-k musika, dantza, plastika eta poesia, eta eszena konposatzen duten arte guztiak bateratu nahi duenez, bateratzera bideratuta dagoen edozen jarduera beti ongietorria izanen da.

I. ATAL.-RI BURUZKOAK IDEIA OROKORRAK

Hausnartu eta iruzkindu

- “Munduaren behaketa zuzena”
- “Guk arreta eskaini gabe gure ondotik pasatzen diren gauzekiko topaketa”.
- “Artea ez da kontatzen: saiatzen da”

Ikasi, bilatu eta erantzun:

Ibiltari Astiduna musika, dantza, antzerkia, poesia eta proiektzioak bateratzen dituen balleta da.

- Bere barnean arte gehienak batzen dituzten zenbat ikuskizun ezagutzen duzu?
- Esan itzazu opera, antzerkia, musika, balleta, dantza garaikide eta zarzuelaren arteko ezberdintasunak.
- Zein da hurrengo lanen betebeharra?: Musika-Zuzendaria. Eszena-Zuzendaria. Koreografoa. Dantza taldea. Musika eta eszena-prestatzaileak. Erregidorea. Audio-tresna. Irudi proiektorea. Anplifikazio orokorreko ekipoa. Argi-ekipoa.
- Esan ezazu zertan bereizten diren hurrengo erritmoak: bolero, bals, swing, pasodoble, giga, tekno eta rok-a. Zein dakizu dantzatzen? Ekar ezazu bi erritmoen musika eta nola dantzatzen den azaldu ezazu.

Grabaketa bat egin:

- CD ala DVD grabatzaile batez, ordenagailua ala kaseta, elektronikoki egindako soinuak (soinuak sintetizatzekeo tresnekin egindakoak) ahoaz egindako soinuekin (ahotsak inongo momentutan parte hartu gabe) nahasten diren grabaketa bat egin.
- Izenburua jarri eta azal ezazu zeintzuk diren parte hartzen duten soinuak, nola egin duzun grabaketa eta zeintzuk diren zure laneko garrantzizko puntuak.

II. ATAL.-RI BURUZKOAK LABURPENA ETA EGITURA

Idatzi eta marraztu:

- *Ibiltari astiduna* nolakoa den azaltzen duen testuaren iruzkina egin.
- *Ibiltari astiduna* nolakoa den azaltzen duen testuaren zati batez “komiki” oinarritzko bat egin (“Cuttlas”-en erako makil marrazkiak).
- Pertsonaia nagusiak bere bizitzaren egun guztiak pasiatzen ematen duela kontatzen duen narrazio motz bat idatzi. Garrantzizkoa da bisitatzen dituen lekuak, aurkitzen ohi duen jendea, gertatzen zaizkion gauzak, edo behin batean gertatu zitzaion abentura bat deskribatzea.
- Marrazki eskematiko bat egin ezazu antzezlaneko bederatzi eszenetako bat gai bezala hartuta: *Ibiltari bakartia*, *Ibiltariak imitatzen du*, *Ibiltari geldia*, *Ibiltari asmatzailea*, *Iragale antzezlea*, *Ibiltari Zen-a*, *Ibiltari eserita*, *Ibiltari galdua*, *Ibiltariak eraikitzen du*.

III. ATAL.-RI BURUZKOAK ITURRI ETA AIPAMENAK

Behatu, pentsatu, bilatu

Zure eguneroko bizitzan ikusten dituzun gauza guztien artean beren diseinuarengatik, itxurarengatik, kolore edo kokapenarengatik politak iruditzen zaizkizunak hautatu itzazu: arte obrarik ez izan arren, zuk museo batean erakutsiko zenituzke eta zergatik dituzun horren gustoko azalduko zenuke.

Zenbait adibide jartzen dizkizut:

- Belar ebakitzaille batek estadio baten belarrean utzitako marra paraleloak.
- Irudimen pixka batez mapak, aintzirak, itsasoak, kontinenteak eta irlak ikusi daitezkeen horma baten ezkatatuak.
- Josteko harien koloretasuna zure etxeko jostatzeran.
- Zuhaitz baten enborreko zirrikituak hurbil-hurbiletik ikusita.
- Oinatzak lurrean, edo lokatzean, edo belarrean, edo elurrean...
- Armairu edo kutxa baten arroparen antolaketa.
- Kolore eta itxura ezberdinetako fruituak (edo kolore eta itxura berekoak, aukeran) azpil batean.

Iruzkindu eta eztabaidatu

“*Manhattan-eko lehioak*”, “*Albers eta Mholy-Nagy –ren besarkada apurtuta*” eta “*Dena irudi batengatik*” testuekin, gogoeta eta hausnarketarekin zerikusia duten ariketa aunitz antolatu daitezke.

- Eztabaida. Batzuen artean gai bat prestatu eta arrazonamendu argiekin defendatu. Kide batek moderatzailearena egingen du. Hitzegiteko txanda gordetzen jakitea garrantzitsua da eta, noski, bi pertsonak batera hitz egite debekaturik dago.
- Testu-iruzkina. Hiru testuetako batetik aprobeztatutako irakurketatik hasita idatzizko testu-iruzkina egin zure ikuspuntua azalduz.
- Albistea. Azalduko hiru testuekin zerikusia duen liburu baten agerpenari buruzko egunkari baten edo irrati ala telebista albistegi baten erako artikuluko bat egin.

Lan praktikoak:

George Perec-en “*Espazioen espezieak*” liburuaren ataletako baten izenburua *Lan praktikoak* da. Liburuaren atal hau, egia esan, ariketa-gidaliburu oso bat da. Zatitxo batzuk transkribatzen ditut:

- Kalea noizbehinka behatu, beharbada arreta sistematiko batez.
- Ezarri. Unetxo bat hartu.
- Tokia, ordua, data eta denbora idatzi. Ikusten dena idatzi. Garrantzizkoa den hori. Garrantzizkoa dena ikusten ba al dakigu? Gure arreta harrapatzen duen zerbait ba al dago?
- Kalea deskribatzen saiatu, zertaz dago eginda, zertarako balio duen. Kaleko jendea. Kotxeak. Eraikinak. Dendak. Kafetegiak.
- Sinpletasun gehiagoz begiratzera behartu.

Espazioarekin jolastu

Espazioen espezieak liburuaren beste atal baten izenburua *Espazioarekin jolastu* da. Atal hau beste ariketa-gidaliburu suertatzen da.

- Distantziekin jolastu: 314.60 km-etara dauden tokiak ikustatzen edota ibiltzen lagunduko gaituen bidai bat antolatu. Jardun egin den ibilbidea plano eta mapetan behatu,.
- Neurriekin jolastea: oinetara, legoetara eta itsas milietara berriro ohitu.
- Espazioarekin jolastea: eguzki eklipse bat eratu erpurua igotzen. Pisa-ko dorrea sostentzen argazkiak egin, ala antzerakoak.
- Bi pentsakera genialei buruz pentsatu: “Askotan pentsatu izan dut zenbat idi beharko litzateke Ginebrako aintziran salda bat egiteko”. “Elefanteak orokorrean duten tamaina baino txikiagoak marraztu egiten dira; baina arkakuso bat den baino haundiagoa marraztu egiten da beti.”

Arte plastikoa eta dantza

☞ XI. ATALA: IKONOGRAFIA (II) –eko argazkiak ikustatu. Lan plastikoen eta mugimendu jarreran dauden gorputzen arteko erlazioak aipatu.

- Edozein arte liburu edo entziklopedian, ala Interneten dauden museo edo artisten web orrialdeetan dauden margoetako edo arte abstraktoko eskulturetako zenbait irudi hautatu.
- “Estatikoak” diren irudiak eta “mugimendua” duten irudiak bereiztu.
- Obra plastiko hauek dantzatzen hasiko balira, nola egingo lukete?: norabidegabeko saltoekin, marraz ala zirkuluak eratuz?, anarkikoki?, antolatutako martxa bat bezala?, diskoteka batean bezala?, dantza klasikoko bakar bat izango litzateke?, tximuen tribu edo talde baten antzera mugituko litzateke?

Chema Madoz

☞ Behatu itzazu Chema Madoz-en (XI. ATALA: IKONOGRAFIA (III)) atalean agertzen diren argazkiak, edo Internetetik jaitsi ditzakezunak), eta gustokoen duzunarekin aukeratu.

- Azaldu hitz gutxirekin non dagoen argazki bakoitzaren “xarma”.
- Aldaketarik bururatzen al zaizu argazkiari buruz?
- Angelu zehatz batetik ikusita, beste gauza bat dirudien objektu bat hautatu. Adibidez : intxaur baten fruitua ez al da burmuin txiki bat?, edalontzi baten ipurdia ez al da lupa bat?, hegazti baten oinatzak ondartzaren arean ez al dira

izkutuko mezu bat?, izotz laukitxo bat desegiten ikustea ez al da aldaketa klimatikoaren igarpen bat?

Ikertu eta barre egin

- ☞ XI. ATALA: IKONOGRAFIA (IV) ataleko marrazkiak arretaz ikustatu.
- Non dago bineta bakoitzeko umorea? Zer parodiatzen du marrazkilariak?
 - Zein egungo plastika-lan ezagutzen duzu umorezko bineta bat inspiratu dezakeena?
 - Arte garaikideko museo (edo erakusketa) batera ikustaldia egin ondoren zein txantxa bota ditzakezun pentsa ezazu.
 - Zeintzuk dira Musika klasikoko kontzertu batean bururatzen zaizkizun txantxak?

IV. ATAL.-RI BURUZKOAK TESTU POETIKOAK

Bederatzi eszenaldietako bakoitzean poema bat entzuten da. Bederatzi poemetako bakoitza forma poetiko ezberdinez idatzita dago. Gaztelerako metrikak hobe ulertzeko gazteleraz dagoen gidan agertzen diren jatorrizko bertsoak irakurtzea komeni da. Azaldutako ariketa hauen lana errazteko erabilitako itxuren deskripzio xume bate egitera noa.

I. Eszenaldia: “Ibiltzeko moduak”. Bertso askea

Ez dago errimo eta metrika legetara atsekituta, bertsolariak berak bere buruari jartzen dizkionei baizik. Bertso bakoitzak bere ozentasuna dauka.

II. Eszenaldia: “Iragaleak eta beraien keinuak”. Erretolika.

Erretoliketean errepikatzen diren bertsoak daude, pilatzen direnak, durundi bat deskribatzen. Antolatutako segida baten eran funtzionatzen du.

III. Eszenaldia: “Erakusleihoak eta manikiak”. Alejandrinoak

Oso aintzineko gaztelerako itxura poetikoa da. 14 silabetako bertsoak dira, bi ataletan zatiturik daudenak. Errima honelakoa da [AA, BB, CC, DD...]

IV Eszena: “Leiho argitsuak”. Lira

Lira bost bertso multzoez eratuta dago hurrengo eraz: [7,11,7,7,11], eta bere errima honelakoa da: [A,b,a,b,B]

V. Eszenaldia: “Graffitiak eta pintaketak”. Rap

Rap-a hurrengo eran antolatua izan da: [11,4,11,4], eta errima [A,b,A,b] da.

VI. Eszenaldia: “Biribilak”. Hayku

Haiyku-a oso motza den japoniar forma poetikoa da. Errima askeko hiru bertsoak soilik dira. Bere erritmoa honelakoa da: [5,7,5]

VII. Eszenaldia: “Kafe-etena”. Abestia

Mundu guztiak dakienez, abestiak era askotakoak izan daitezke. Musika bertsoen erritmoak agindu ohi ditu. Errepikatzen den zerbait dago beti.

VIII. Eszenaldia: “Azoka nahaspila”. Kakofonia.

Silaba batzuen etengabeko errepikapenean datzan hizkuntzaren bizio bat da.

IX. Eszenaldia: "Gaineko erremateak". Sonetoa

Sonetoa gaztelerako forma poetiko klasikoan "erregea" da. 12 bertso endekasilaboz (11 silaba) osatuta dago, bi laukote eta bi hirukotetan banaturik. Errima [A,B,B,A. A,B,B,A. C,D,E. C,D,E]

Aztertu, errezitatu eta idatzi

Poesiari buruzko ariketa asko izan daitezke. Izaera orokorreko zenbait proposatzen ditut:

- Testuak beraien forma, edukin, adierazpen, erritmo eta musikaltasunari begiratzean aztertu.
- Ozenki irakurri, doinuera onean.
- Forma poetiko berbera duten bertsolari ezagunen bertsoak bilatu.
- Gehien gustatzen zaizun forma poetikoan bertso bat idatzi, beti 'Ibiltari Astiduna' -ren gaia jarraituz.
- Soinu elektronikoa eta *ahozkoez* egindako grabaketarik egin baduzu (I. Atalaren ariketen aholkua), zeure poesiak errezitatu (ala grabatu) al zenitzake bere gainetik?
- Javier Krahe (bere *Abesti guztiak* liburuan bildutak) eta Joaquin Sabinaren sonetoak (*Eta ehundaka egan* liburukoak) ozenki irakurri, aztertu eta abestu itzazu.

V. ATAL.-RI BURUZKOAK BEHAKETA MUSIKALA

I. Eszenaldia: Elkarjositako bakarrak

- Argi al duzu lau hari instrumentuen arteko ezberdintasuna?
- Bereiziko al zenuke instrumentoen agerraldia hurrengo segidan?: I. biolina, pianoa, kontrabaxua, biola, pianoa, II. bibolina, txeloa.

II. Eszenaldia: ABA Forma

- Forma honetan antolatutako musikarik aurkitzen ahal duzu?
- ABA itxura duen marrazki bat egin ezazu. Ondoren, deskribatu ABA itxura duen testu batez. Testu hori ABA itxura duen musika batez ordezkatu ezazu.
- Kanonen bat ezagutzen al duzu? Esistitzen diren hamaika inolako arazorik gabe kanta daitezkeen.

III. Eszenaldia: Hiru atalak tentsioa hartzen dute eta bapatean gelditzen dira

- Eskema hau [<<<< <<<< <<<<] duen inprobisazio bat egin (kontuan izan "<" ikurrak handiagotzea esan nahi duela).
- Eskema bereko inprobisazio bat zuzendu instrumentu informalez osaturiko talde batekin.
- Eskema berbera izango duen konposaketa egin paper batean ikur batzuk atsekitzen.

IV. Eszenaldia: lasaitzen diren Lau Nokturno

- Eskema hau [>>>>... >>>>... >>>>... >>>>...] duen inprobisazio bat egin (kontuan izan ">" ikurrak txikiagotzea esan nahi duela).
- Eskema bereko inprobisazio bat zuzendu instrumentu informalez osaturiko talde batekin.
- Eskema berbera izango duen konposaketa egin paper batean ikur batzuk atsekitzen.

V. Eszenaldia: Erritmoa. Parodia. Umorea

- Erritmo asko duen musika batekin (rythm and blues, heavy, scat...) hasten den muntaia musikala egin ezazu (CD-an ala kasete batean grabatuta), pasodoble baten zati bat atsekitzen zaoina, eta umorezko musika batekin amaitzen dena.

VI. Eszenaldia: Gelditasuna eta gogoeta.

- Zenbait noten pedal egonkor baten gainean (sintetizadore edo antzeko baten teklen gainean pisuren bat uzten lortu dezakezu) musika motel, amaigabe eta zaharkitu samar bat jo ezazu (gregoriano edota orientala dirudiena). Inolako ikaraldirik ez egotea premiazkoa da.

VII. Eszenaldia: Ariketa eta mugimendua

- Erritmo-kaxa baten (edo antzeko baten) etengabeko erritmorra gorputzarekin egindako perkusio-inprobisazioak gehitu eizaizkiozu.
- Aho, esku edo oinekin erritmo bat ezar ezazu. Ongi finkaturik duzunean guztiz aurkako beste batera aldatu. Aldatzen jarraitu ezazu hasitakoarekin bukatu arte.

VIII. Eszenaldia: Kaleidoskopia

- Azoka-giroa: gelako guztien artean azoka-giroko soinua egiten saia zaitezte: zurrumurruen artean, noizbehinka, produktu baten berria entzun behar da.
- *Mision Imposible* filmaren soinu-bandako abesti nagusia gogoratzen al duzu? Zenbaitek akonpainamendua eginen dute (bost pultsotan dela gogora ezazu) eta, bere gainetik, tema besteek abestuta entzunen da.

IX. Eszenaldia: Ebatzi gabeko igarkizunak

- Morse lengoaiaren erako erritmo bat sortu ezazu.

Aztertu. Jo. Abestu.

- ☞ X. ATALA: PARTITURAK (I) Himnoa atalean agertutako abestiako nota-irudiak eta alterazioak aztertu. Hirukotxo eta sinkopen oztopoa gainditzen saiatu. Lortzen baduzu irabaziko duzu.
- Bi ahotsetako partitura da: bata altua eta bestea grabea. Saia zaitez egokiak diren bi instrumenturekin jotzen.

Aztertu. Ikertu.

- ☞ X. ATALA: PARTITURAK (II) atalean jatorrizko partituraren zenbait zati idatzita dago. Agerian denez ez ditut jotzeko nahian barnean sartu, baizik eta zenbait alderdi azter daitezten.
- Pentagramen kokaketari eta agertzen diren ikur eta sinboloei so egin. Ikusten dituzun ikur eta nota bakoitzari dagokion izena jarri.

VI. ATAL.-RI BURUZKOAK DANTZA GARAIKIDEA

Desinhibitzeko jokuak:

Mugimenduzko ariketa baten hasierako lotsa eta alferkeria gainditzeko, eta gorputz adierazpena gazte-munduan sartzen hasteko, umorezko jokuren bat komenigarria da, komunikazioa eta norberekiko konfidantza erraz dezan.

- Musika martxoso baten gainean (tradiziozkoa, beste kulturetako edo dantzakoa posible bada), taldeak, biribilean, buruzagi baten mugimenduak jarraitzen ditu. “Sortzaile”-aren txanda aldatzen doa taldearen kide guztiak pasatu izan arte. Hau bera lurrean eserita egin daiteke, gorputzaren zati soil batekin egin daiteke (beso bat, oina, hatza...), eguneroko mugimenduak eginez (dutxatu, gosaldu, ondo pasatu...), edo eguneroko eszena bat irudikatuz.

Laban-en “Mugimenduaren Oinarrizko Bost Formek” dantzaren elementuekin erlasionaturiko joku klasikoak egiteko aukera handiak ematen dizkigute. Maniobratu ahal izateko handia den eta utsik dagoen gela bat beharko dugu.

Lokomozioa

- Pandero batez egindako oinarrizko taupada batez era ezberdinetako urratsekin mugitzen gara: ejekutiboa bezala, erosketarako gurditxo batekin, umea bezala, unibertsitarra bezala, zaharra bezala...
- Saltoka, lurrean jira-biratzten, irrist egiten, narrasten edo gupila eginez ere egin daiteke.
- Pultsazioa aldatzen dugu.
- Lagun baten estiloaren antza egiten dugu.

Keinuketa

- Ohizko Ispiluen jokua: binaka, bata bestearen aurrean, ispilua bagina bezala bestearen keinuak imitatu egiten ditugu.
- Orain, lekutik mugitu gabe, beste mugimenduetara zabaltzen dugu: burua astindu, sorbaldak kuzkurtu, eskuarekin zeinuak egin edo oina kulunkatu.

Altxaketa

- Lurretik jaikitzeke era ezberdinak saiatzen ditugu: erabakitasunez, alferkeriaz, angulotsu eran, errobotak egingo lukeen bezala, ahalik eta mantsoen, “glamour”-ekin...
- Jauzien estiloak: jauzien kalitatea estimatzen den lehaiketa bat egiten dugu: originalena, barregarriena, dotoreena eta gimnastikoena.

Biraketa

- Norberak bere buruari birak emateko era asko dago: bakoitzak oso pertsonala den era bat asmatuko du. Guztiak imitatzen dute.
- Biratzeko zenbait era batuz, itxura koreografiko txiki bat lortu.

Jarrera

- Gorputzaren jarrera sinple baten bitartez, gelako gainerakoek zein pertsonaia ospetsua den asmatu behar dute.

Ibiltari Astiduna

- Taldea eskultura balitz bezala kokatu, manikiak dituen erakusleio bat bezala, filma baten eszena bat “pause”-n bezala, argazki baterako kokatu, merkatu batean denbora gelditu egiten den unean bezala...

Bateraketa

“Mugimenduaren oinarrizko bost formak” landu ondoren batutzera pasa daiteke:

- Antolatu: oinarrizko itxura bakoitzeko mugimendu bat hautatu, horietako zenbait lotu eta era ezberdinetan antolatu.
- Egokitu: aurreko emaitza musika zehatz bati egokitu. Musika arretaz entzun eta mugimenduak bere erritmo eta itxuretaratu egokitu.
- Batu, errepikatu, aldatu... Hots, lana nola hasi zen ahaztu eta emaitza hobea lortzen saiatu, kanpokaldetik ikusten dutenei interesgarria iruditzen.

Koreografia bat eratu

Hasierako jokuekin zenbait sesio egindakoan koreografia sinple bat eratu daiteke. Saski hau egiteko erabiltzen diren lastoak hauek izan daitezke:

- Musika iradokitzaile bat bilatu, eki-kulturakoa posible bada: bi atal ezberdin izan dezan garrantzizkoa da, bata azkarra eta bestea motela (zenbait musika ezberdinekin egin daiteke, noski).
- Ikasleak zenbait taldetan banatu. Imitazio jokuak erabiliz, talde bakoitzak zenbait oinarrizko mugimendu hautatzen ditu. Entsaiaitu eta hobetzen dira.
- Taldeen partehartzeak musikaren zati ezberdinetan banatu.
- Gelako espazioaren banaketaren arauak finkatu: ateratzeko antolaketa, bilakaerak dantzatokian, dantzarien sar-ateraldiak...
- Antzezpena ahalik eta era “profesionalenean” egin: lehenik ezer ez (inolako mugimendurik ez gela osoan), musika hasten da (lehen taldearen sartzea), guztien partehartzea, amaiera (erabateko amaiera bat ongi entsaiaitu), irudizko ikusleei agurra, eta aretoa hustu.

“Rhythm is it!”

Filma honen DVD-a lortu eta ikastetxe osoak ikustea bururatzen zaizkidan jardueretako emankorrenetariko bat izango litzateke. Internet-en filma horri buruzko informazioa lortzea oso erraza da.

VII. ATAL.-RI BURUZKOAK BIZI ETA HEZI ARTEAN

Argazki safaria

Gehienez hiru partaidez osatutako taldeak osatzen dira. Talde bakoitzak argazki kamera digital bat izanen du (edo argazkiak egiten dituen telefono mugikorra). Topaketa batean edo zenbaitetan, ikas-ordutegitik kanpo, gai hauetara moldatzen diren zenbait argazkien sorta egingen dute:

- Ibiltzen doazen oinak.
- Pasiatzeko jarrera duen jendea.
- Manikiak.
- Gauean argiztutako leihoak.
- Graffitiak.
- Objetu borobilak
- Kafetegietan eseritako jendea
- Azoka giroa
- Eraikinen goiko bukaerak

Lanen hoberena hautatu ondoren, gai guztiak irudikatzen diren emaitzen ikustaketa (edo proiektzioa) egingen da.

IX. Atalburua - BIBLIOGRAFIA. INTERNET

J. J. BELJON: *Gramática del arte*. Celeste Edicion. Madrid, 1993)

BARBARA HASELBACH: *Tanz und Bildende Kunst (Del arte al movimiento)*
(Ernst Klett Verlag. Stuttgart, 1991)

CHEMA MADOZ. PhotoBolsillo. La Fábrica. Madrid, 2002

ANTONIO MUÑOZ MOLINA: *Ventanas de Manhattan*. Seix Barral. Barcelona, 2005

JAVIER KRAHE: *Todas las canciones*. Visor Libros. Madrid, 2003

JOAQUIN SABINA: *Y ciento volando*. Visor Libros. Madrid, 2003

QUINO: *Qué presente impresentable*. Lumen. Barcelona, 2005

LOUP: *L'Art comptant pour rein*. Le cherche midi. París, 2003

GEORGE PEREC: *Especies de espacios*. Montesinos. Barcelona, 2004

VV.AA.: *Música y Danza para el niño*. Instituto Alemán. Madrid, 1979

<http://mipunto.com/temas/01/danza.html>

<http://www.andalon.net/zmodern.html>

<http://www.chemamadoz.com>

X. Atalburua – PARTITURAK

(I) Himno

Musical score for the hymn 'Himno'. It consists of two systems. The first system features a Soprano part (Soprano) and a Bass part (Bass). The second system features a Soprano part (S) and a Bass part (B). The music is written in a common time signature (C) and includes various musical notations such as notes, rests, and dynamic markings.

(II) Partituras de la obra

ESCENA 2ª El paseante imita: "Los transeúntes y sus gestos"

Musical score for the scene 'El paseante imita: "Los transeúntes y sus gestos"'. The score is for a full orchestra and includes the following parts: Piano 1, Piano 2, Violin 1, Violin 2, Viola, Cello, and Contrabass. The score is written in a common time signature (C) and includes various musical notations such as notes, rests, and dynamic markings. The score is attributed to Fernando Palacios.

Ibiltari Astiduna

ESCENA 5ª - El paseante intérprete: "Graffitis y pintadas"

Fernando Palacios

Allegro muy marcado (Seri)

Piano 1
Piano 2
Violin 1
Violin 2
Viola
Cello
Contrabass

ESCENA 9ª - El paseante construye: "Los remates superiores"

Fernando Palacios

Grave (♩=30)

Piano 1
Piano 2
Violin 1
Violin 2
Viola
Cello
Contrabass

XI. Atalburua – IKONOGRAFIA

(I) J.J. Beljon: “Gramática del Arte”

J. J. Beljon

Visualización: Menchu Gómez Martín


OGEN OPEN

∞ *Gramática del arte* ∞


PRINCIPIOS DE DISEÑO

*que derivan de la manera en que nos atamos los cordones de los
zapatos, nos doblamos la ropa o cortamos el césped y que
guardan relación con otros actos comunes de la vida
cotidiana, como caminar por la playa, reír, llo-
rar, brindar, abrazar o hacer el amor y
también la guerra*



C
ELESTE



75 Fachada en Barcelona. Foto: M.G.M.




(II) Barbara Haselbach: "Del arte al movimiento"




Ibiltari Astiduna



Ibiltari Astiduna




(III) Chema Madoz





Ibiltari Astiduna




Ibiltari Astiduna







(IV) Loup y Quino




Loup



Ibiltari Astiduna



Loup






Loup



Ibiltari Astiduna




Loup

QUINTO


¡Qué presente
impresentable!



Lumen



Quino



Quino



Quino